

KONTU-KONTARI**GAU-LOREAK****III. KAPITULUA**

Nork esan du loreek ez dutela sentimendurik? Nork ukatu die iragana, oraina eta etorkizuna? Gau-loreei begiratzea besterik ez dago haien sentimenduak ulertzeko. Lore ibiltariak, Ameriketatik etorriak, badute iragana. Gure lekuko diren heinean, oraina dira. Sustrai sendoek ahalbidetuko diete etorkizuna. Begira diezaiegun arretaz, senti ditzagun gure baitan, iragana, oraina eta etorkizuna.

-I-

Zer ezkutatzen duten gure kale eta kantoiek
jakin badakite gau-loreek,
aspaldiko berriak nahiz gaur egunekoak
isil-gordean baitituzte barneratuak.

Egun argitan ikus ezin daitekeena
gauaren ilunean nabarmentzen dakite
euren liluraz jantzita
apal badira ere.

-II-

Gaur, atzo bezala,
bila eta bila gabiltza.
Bagabiltza
zerbaiten esperoan.
Ezin jakin zerk bultzatuta:
Ametsen desirak edo errealitatearen benazko izaerak.
Halakoa omen da bititza.

-III-

Elkar errespetatuko bagenu,
desberdintasunean berdin ginatke.
Urtaroek egin antzera,
paisaia berbera koloreztatuko genuke beti,
ardurarik izan gabe
neguak biluztuko gaituen ala udaberriak jantzi
hostoak bizi dauden ala iharturik.

-IV-

Langile pobretu bat doa maldan gora.
lana izan eta pobre iraun,
horixe bere egoera.
Zaratatik ihesi doa
isiltasuna entzun nahian.
Gizarte hobea agindu zioten arren
oraindik ez du halakorik ezagutu
ez behintzat malda behean.

-V-

Olgetan dabilta umeak moilan,
uretara saltoka.
Bazter utzi dituzte eskuko telefonoak,
arrainek ez dutelako hitzik egiten
ezta whatsappik idazten ere.
Eta umeak gai izan dira
elkarren artean berba egiteko aurrez aurre,
ur azpian egoniko denboran ez bestean.
Bien bitartean, kainaberadun arrantzaleak
arraina dakar gora
amuan ondo lotua.

(JARRAITUKO DU)

Francisco Javier Arrieta Idiakez